



## “Beharrezko diren neurriak hartzen badira, erleek ez dute zertan desagertu”

Concepción Ornos

Madrilgo Complutense Unibertsitateko irakaslea, erleetan aditua

Mundu guztiko ikerketa zientifikoek esaten dute erruz gutxitu dela ezta egiten duten erleen kopurua, eta beste intsektu espezie asko desagertu egin direla. Concepción Ornosak egin ditu ikerketa horietako batzuk (Complutense Unibertsitateko irakaslea da), eta erleak galtzearen arrazoiak zein diren eta horrek zer-nolako arazoak dakartzan adierazi du. Animalia horiek, izan ere, funtsezkoak dira ingurumenarentzat eta ekonomiarentzat. Erleak galduz gero gizateria ere desagertu egingo dela entzuten da, baina alarmismo katastrofikoetatik urrun, aditu honek azalpenak ematen ditu, eta izaki bizidun horien egoera hobetzeko zer-nolako neurriak har daitezkeen zehazten du.

**Zergatik sortu da kezka erleen inguruan?** 2006. urtean, Ameriketako Estatu Batuetan eta beste herrialde batzuetan “kolonien kolapsoa” antze-man zen, hau da, erlauntzak erlerik gabe gelditzen hasi ziren bat-batean. Laboreen polinizazioak diru asko mugitzen du AEBetan, eta alarma guztiak piztu ziren, eta ehunka ikerketa egiten hasi ziren mundu guztian. Erle espezie bakarra ez da ezta egiten duena: 20.000 basa espezie baino gehiago daude, eta batzuek garrantzi gehiago dute ekosistemarentzat. Erlastarrek, adibidez, hobeki polinizatzen dute-eta ezti-erleek baino. Horietatik guztietatik, asko desagertu dira mundu guztian, eta beste batzuk arrisku kritikoan daude. Iberiar penintsulan, galdu egin dira orain dela 30 urte ba-zeuden espezie batzuk.

**Zergatik dira hain garrantzitsuak erleak?** Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen arabera (FAO), gure janariaren bi heren polinizatzen dituzte erleek. Ezti-erleek

egiten duten polinizazio lana gizakiok egin beharko bagenu, urtean 30.000 milioi euro kostako litzaiguke mundu guztian. 2012. urtean, FAOk kalkulatu zuen kostu hori 265.000 milioi eurokoa izango litzatekeela erle guztientzat.

**Erlerik gabe gizateria desagertu egingo litzatekeela esan da. Egia al da hori?** Baieztape hori Einstein-en ahotan jarri da, hark egiaz zer esan zuen jakin gabe. Hori ezin da frogatu, eta segur aski ez dira guztiak desagertuko, beti izango da-eta espezieren bat beste baten lekua hartuko duena. Baina bioaniztasuna galtzen da, eta hori ez da ona. Florako espezie batzuk arriskuan daude, erle batzuek espezie horiek bakarrik polinizatzen dituztelako eta desagertzen ari direlako. Beharrezko neurriak hartzen badira, erleek ez dute zertan desagertu.

**Zergatik desagertzen dira?** Hainbat faktorerengatik: malnutrizioa; monokultiboak daudelako eta laborantza intentsiboa hedatu delako; pestiziden erabilera, bereziki neonikotinoideena; erlauntzetan azkar transmititzen diren parasitoak, *Varroa* akaroa eta *Nosema caranae* onddoa, esaterako; larreak eta belardiak galtzea...

**Zenbaterainokoa da “kolonien kolapsoa”?** STEP Europako proiektuak esaten duenez, Finlandiak eta Erresuma Batuak polinizaziorako behar dituzten ezti-erleen %25 baino ez daukate. Frantzia eta Alemanian, %25aren eta %50aren artean dabilta. Espainian, %70ari eusten zaio.

**Espainian, zein faktorek dakar mehatxurik handiena erleentzat?** Marchaloko Nekazaritza Zentroak (Guadalajara) frogatu du, ezti-erleetan, *Nosema caranae* onddoa dela garrantzitsuena. Erlastarrentzat, berriz, pestizidak eta larreak galtzea.

**Europako Batasunak (EB) galarazi egin ditu hiru pestizida neonikotinoide. Zer neurritan dira kaltegarriak?** Edozein intsekturen erantzun neurologikoei eragiten diete, ez laboreek izaten dituzten izurriteei bakarrik. Zenbait ikerketak diote behar baino bi heren gehiago erabili direla. Gainera, landare guztian sartzen dira, ura eta haizearen bidez transmititzen dira, eta horien eraginek asteetan irauten dute, eta hilabeteetan ere bai. Erleek jaten eta biltzen duten polen eta nektar kutsatua habiara heltzen denean, gainerako erleek jan egiten dute eta horiek ere hil egiten dira.

**Nekazaritzaren sektoretik kritikak egin zaizkio EB-ri.** EBk agindu duen luzapenak galarazi egiten du bederatzi neonikotinoideetako hiru, hiru urtez erabiltzea, zer-nolako bilakaera gertatzen den ikusteko. Nekazariek bestelako sistema batzuk dituzte izurriteei aurre egiteko, adibidez kontrol biologikoa erabiltzea parasitoen aurkako intsektuekin. Gainera, ez dezakete gehiegikeriarik egin plagizidekin eta saihestu egin behar dituzte airetik egindako fumigazioak.

**Zer-nolako neurriak hartu behar lirateke erleen egoera hobetzeko?** Pestizidak murriztu, ikertzen jarraitu, larreak, belardiak eta paisaia naturalak lehengoratu, landatuta dauden alorretan landaredi naturala sartu tokiko florarekin, edo espezie autoktonoetako polinizatzaileak berrezarri.

**Zer egin dezakete herritarrek?** Intsektuek duten garrantzia baloratu. Gaizki hezi gaituzte, eta beldurtu egiten gara intsektuekin. Erle batek ez du izaten gu ziztatzeko asmorik. Beldurtu eta eskuarekin uxatzen badugu, agian bai. Geldirik bagaude, ez digute kasurik egingo.

## “Erleak planeta guztian doaz gainbehera”

Jesus  
Manzano

Erleen Lagunak  
Fundazioko zuzendari  
exekutiboa

Erleen gainbeherak ezin hobeki adierazten du zer-nolako kaltea jasaten ari den haien ingurune naturala. Halaxe nabarmendu du Jesus Manzanok, Erleen Lagunak Fundazioko zuzendari exekutiboa. Aditu honek dioenez, arazo globala da, eta Espainiako Estatuari ere eragiten dio, nahiz eta bertako datuek ez duten islatzen benetako egoera, zeren erlezain askok ez baitute esaten erlauntzen zati bat hil egin zaiela, Europako Batasunak ematen dituen diru laguntzak galtzeko beldurrez.

**Zer gertatzen zaie erleei?** Nekazaritza industrialaren gehiegikerien sintoma da horien gainbehera, eredu horrek sortu duen sorgin gurpilarena: monokultibo handiak, ongarrri artifizialak, izurriteen aurkako toxikoak eta bioaniztasuna desagertzea.

**EBk debekatu egin du zenbait urtez pestizida batzuk erabiltzea. Nahikoa izango al da?** Neonikotinoideen gaineko susmoak ez ezik, alorretan erabiltzen diren beste eragile toxiko batzuen gaineko susmoak ere gero eta handiagoak dira. Txosten zientifiko luzeak eta legeria mantsoak beharko dira, eta bitartean, erleek eta milaka espezie polinizatzaile hilko dira.

**Zergatik dira hain garrantzitsuak erleak?** Erleetan ikusten da zer-nolako osasuna duen gure ekosistemak eta erleak dira landareak birsortzeko katebegia Lurrean. Eragin ekonomikoa ez da nolanaikoa, Europako uztaren %84 polinizatzaileen mende dago eta. Horiek gabe, gizakiarentzat garrantzitsuak diren zenbait landarek ez dute bizirik iraungo, arrozak adibidez.

**Zer-nolako egoeran daude gaur egun?** Planeta guztian doaz gainbehera. Erlezainek neke handiz lortzen dute erle galerak orekatzea. Gainera,

erleen eskaria azkarrago handitzen ari da eskaintza baino. Toki batzuetan ez dago polinizatzailerik, eta baserritarrek eskuz polinizatzen dute sagastien lore bakoitza, arbelondoena...

**Eta Espainian?** Iparraldeko herrialdeetan baino txikiagoa da hilkortasuna. Baina erlezain askok ez dute esaten erlauntzaren zati bat hil zaizkion, EBk sendagaien zati bat ematen dituen diru laguntzak ez galtzeagatik.

**Asiako erlea mehatxu bat dela esaten da. Zenbateraino?** Espezie inbaditzaile hori, *Vespa celutina nigritorax*, egiazko mehatxua da Frantzia hegoaldean, Portugal iparraldean eta, Espainian, Pirinioetako eskualdeetan eta Kantauri itsasoko ertzean. Litzortzar horrek ordu gutxitan egiten ditu erlauntz batekikoak, bere larbak erleekin elikatzen. Inguru kaltetuetan badira aurka egiteko planak, eta espero da horien zabalkundea geldiaraztea. Komunikabideetatik eta Internetetik, Europako litzortzarren aurka joateko esaten da, *Vespa Crabro* delakoaren aurka, baina hori errugabea da, eta, gainera, halakoei eusteko daukagun arma nagusia, bere lurraldea defendatu egiten du-eta inbaditzailearen aurrean.

**Bizi al daiteke erlezaintzatik?** Espainia da Europako ezti ekoizle nagusia. 23.000 erlezain daude, eta horietako %20k baino ez dituzte ustiategi profesionalak. Andaluziak, Extremadurak eta Valentziak biltzen dute sektorearen %62. Ezti ateratzera bideratzen da negozioren %90, beste herrialde batzuetan ez bezala, non dibertsifikatu egiten duten erlauntzeko gainerako produktuekin: propolioak, argizaria, polena, jelea, erle hazkuntza edo apitoxina (horien pozoia). Norberari lana emango dion ustiategi bati

eusteko, 50.000 eta 80.000 euro artean jarri behar dira. Ez da erraza erleak gobernatzea. Erlezain hasiberri askok lehenbiziko urtean uzten dute. Asko ikasi behar da eta boluntario gisa aritu urtebetean gutxienez, profesional aditu baten erlauntzetan.

**Zer-nolako neurriak hartu behar lirateke erleen egoera hobetzeko?** Pertsonen osasuna eta elikadura arloko segurtasuna hobetzeko hartu behar diren berberak. Aldarazi egin behar da nekazaritzako ekoizpen ereduak. Landare aniztasun handiagoarekin, kimiko tona gutxiago beharko da. Beharrezkoa da erlezainak prestatzeko plan bat ere, eta osasun legedi bat, erlezaleak behartuko dituen erleen gaixotasunak jakinaraztera eta neurri egokiak hartzera.

**Herrialde eta estatu batzuek hirietan erlauntzak jartzen dituzte erleak salbatzeko eta kalitatezko ezti egiteko. Zer iruditzen zaizu?** Erleek osasun hobea dute hirietan, non parkeetan eta eremuetan flora aniztasun handiago duten eta agrotokiko asko galarazita dauden. Beste herrialde batzuetako legedia oraindik ez dezakegu Espainian probatu: legeak galarazi egiten du hirietan erlauntzak jartzea. Unea iritsiko balitz, saihestu egin behar litzateke gure ekosistemarekin zerikusirik ez duten espezieak sartzea. Edonola ere, uste izatekoa da onurak ekarriko litzukeela guztientzat.

**Zer egin dezakete herritarrek?** Produktu kimiko-fitosanitarioen erabilera mugatu, erlezaintza babestu, polinizatzaileei kalitatezko elikagai hornidura bermatu, kontzientzia sortu eta nekazaritzan eragin, enpresetan eta agintariengan, eta lankidetzan aritzeko sareak sortu.

www.consumer.es

